

# Brahama'ren alabak

*Teodoro CAMPOS'ek*

India'ko salerosle aberats bat, 1937'an, Urtzi'ren deia barne entzunik, ots egiten asi zan. Askok aintzar artu zituen aren itzak, emakume askok bate be, arentzat bada emakumeak zuzentzeko indarrez jantzia izan bear eban. Brahma Kumaris'tarrak, Brahma'ren alabak dira, gizaldi-erdi geroago be, leen legez, aldarrikatzen diarduenak, garbitasunaren bitartez bakarrik lortu leitekela bakea eta ondo izatea.

## Hindu-erakundea

Arrobi aundi bat dozu hindu-sistema, emendik jalgi bait dira alabat erlejiño ta sekta, iñoiz be agortu barik. Dotriña onek, diñenez, barruan daroa puntu zurikor bat, au da, endak, kastak dirala-ta euren erritar erdiari bai ezarten dauksen jarreta giza-azpikoa. Au gaitzetsi daben gizon zintzo askotxo izan dira edestian zear. Budha eta Mahavir izan ziran leenengo jagi ziranak bidebagekeri onen aurka. Eurotatik iñok ez eban erlejiño barririk sortzeko asmorik. Mahavir'ek otsegiña sektatik etzan egungo be igaro, eta Budharrina be etzan

geiago izango Ashok agintari nagusiak. Jesukristo baiño gizaldi bi aurrerago, hinduismoa artu ta India osoko erlejiño lez indar-azo ta zabaldu ez ba'leu.

Sistema au etzan ondo ikusi izan orduan, ezta geroago be. XVI-garren gizaldian eta batez be XIX-garrenean, intelektualak, Europa'ra elduaz joian filosofi barri-gaz, litsaturik aurkitzen ziran hinduismuaren leentasunaz eta itsukeriaz. Batzuk kristau-garra sartu nai izan eutsoen, baiña beste batzuk aintziñako dotriña ori jaso ta duintzen alegindu ziran, argari biurtu arte.

Alan eta guzti be, Mahatma Gandhi'k bakarrik lortu eban enda ta leinuen sistema ofizialki kentzea Konstituzioñotik. Gaut, edozein inditar bardiaña dozu legearen aurrean. Eguneroko bizitzan... beste zerbait da: millaka ta millaka urte dituan erakundea ez da ilten lege batekin.

## Barritzaille jator bat


Gandhi'ri oindiño amar bat urteko bizia geratzen jakolarik, na-

... barrutian gizaseme bat agertu  
 ... eukazan experientzi misti-  
 ... hinduismuan iraultza barri  
 ... asiko ebana. Lekhraj eritzon  
 ... Pakistan dan eskualdean  
 ... 1976'an jaioa, Indus ibai ondoan  
 ... zuzen. Bere aitari lagundu  
 ... lenengotan diamante gara-  
 ... negozio orretan bertatik  
 ... ez ba'zan be, gero lurral-  
 ... aberatsena gertatu zan  
 ... Lekhraj; Gizon duiña, ondo jan-  
 ... zeratsu guztiakaz, beartsua-  
 ... eskuzabal, laster irabazi zituan

auzuko en biotzak: «Dada» dei egi-  
 ten eutsoen oneik, shindi izkun-  
 tzan «anai nagusi» adieraziz.

Eraspen aundikoa zan, eta Na-  
 rayan eta onen emazte Lakshmi  
 ren jainkoen irudiren bat aldean  
 erabilli oi eban. Baiña irudi bat ez  
 jakon atsegin: Narayan onako  
 baten eroso makurturik egoan  
 Lakshmi'k mezuak emoten eutso-  
 zala bernetan, edozein emazte zin-  
 tzok bere senarrari legez. Zergai-  
 tik ezberdintasun au, jainkoen ar-  
 tean be?, itaunka inotsan bere bu-  
 ruari. Protesta sentipen bat zan  
 au, inoiz be kenduko ez jakona.

Zoritzar eta ezbearrez dago  
 mundua. Ikus zelako taiua: iza-  
 dian, gizartean, gizonetan. Bada  
 eztabaidarik gauzak artez jarri  
 naita. Gobernuak alkartzen dira,  
 politikuak, zientzilariak, gudaibu-  
 ruak, baiña gerrak, izu-ikarak, go-  
 sea, ezberdintasuna, gizartean eta  
 naziño artean, gaixoak, berezko  
 ezbeurrak, aurrera doaz eta gei-  
 tuaz. Nok ipiñi oni, ainbat gaitzi,  
 ondoren egoki bat? Goazen Abu  
 mendira, 1.400 metro goi dana  
 eta Gujarat estadutik laster da-  
 goanera, an aurkituko gizaseme  
 talde batzuk, mundu guztirako ba-  
 kearen askapena daukela uste da-  
 benak osotuak. Mendi au izit bi-  
 llatua dabe udatiarrak; baita erro-  
 mes askoren aurki-tokia be, bero-  
 nen gaillurrean jauretze ugari di-  
 ralako.



Lekhraj, taldearen sortzaillea.

## India'ko mendiak

Edonor da inditarrak ibaiari dau-  
tsen griñaren jaube. Eta guzti  
oneik sagaratuak dituzu. Edozein  
ibaitan busti-aldi bat artzea ari-  
mako garbiketa dozu; baiña Gan-  
ges edo Yamuna'n egiten bada,  
baiña «induljentzi osoa» lakoxea  
litzake. Ba leiteke ain ezaguna ez  
izatea, inditarrak mendiai dauksen  
arrimena, batez be lautada esker-  
gak diran Gujarat antzeko eskual-  
deetan. Mendigoizale errimean zan  
aitasantu Pi XI garrenagaitik esan  
oi da, mendi-erpin batera igotean,  
au esaten ebala: «Mirabilis in  
altis Dominus» (Arrigarri zara,  
Jauna, mendi-gaiñetan!). Senti-  
mentu onek beronek eragiten  
eutsen inditarrari be, antza denez,  
gaiñean jauretzeren bat beti aurki-  
tzen eben mendiak ikertzerakoan  
India-n asko dira mendietara doa-  
zan ikasleak.

Saurashtra'n, polititoki Guja-  
rati lotuan, Girnar entzute aun-  
diko mendia daukagu. Entzute  
aundikoa, lendabizi Gir oianetik  
ur dagoalako; emen aurkitzen  
dira, ba, urte batzuetako estadisti-  
kak dihoskuenez, 450 leoi. Baita  
ospetsua da Junagadh uritik laster  
eregia dalako; emen aurkitzen da  
asbaltzoko arkaitz munduan baka-  
rra, arkaitz onetan irakurten dira  
Ashok agintari nagusi edo enpe-  
radorearen aginduak ez-erik, es-


kaalde osoan zabaldurik antzeko  
aitzetan zizelduta dago an Mahat  
Sirapa eta Gupta dinastietako  
Agindu ta iragarri guztiak.

## Abu mendia

Girnar'ek mitu-arru-errotia dau-  
ka Abu'rekin. Esan oi denez, lau  
burudun suga uda belduztat  
Abu'ra datorrena, jainko baten  
atzalkalez egina izan zan Nakti  
aintzina ederren baiña antzeri gita  
zuzen be.

Besteak beste, aintzina ta guñe-  
tiko beste berenka edertasun ar-  
koren artean, Abu'k ba-dian jaure-  
gi geiagorik be, Delwarz'ena en-  
tzutetsuena izanik. XIII gizaldian  
atxurdiñezko jauretzea, cumean  
gorderik egoalako edo, Mogul'ar-  
ren lan suntsikorretik iges egina.  
Antzetsu egindako jauretze bat  
larrainaren erdian, zotoñiak bitan  
daukazala. Zotoñetik zotoñera  
erdian, ormeari dauzola, idolo bat  
dager. Goi-sapaian eder-eder lau-  
datako argi-leio bat miressi ge-  
gike. Bata baiño bestea obeto eg-  
ñak dira eurok.

Udan batez be Abu'n aurkitzen  
dogun kolore askotako jantzi an-  
dunan, emakume talde bat dago,  
nastu-erria, gazteak geien-geienak,  
sari zuti bikaiñez jantziak. Talde  
trukieta dabitza ara ta ona, euren



*Abu-mendiko Delwara eliza.*

buruak erakutsi naiez bezela. Euren atzetik ba'zoaz, bira egitean ikusiko dozuz ater aundi baterik sartzen; ate aren gainean idazkun au daukazu: BRAHMA KUMARIS. Ate onen bestekaldean zuru-bi aundia miresten da, «Universal Peace Hall» (Bake osorako Kutxa) deritzonera daroana. Emen edozeinek idoroko dau bat-edo-bat maitekor artuko dauana, asko dagozan gizategi batera adeitsu igaroteko esanaz. Bertatik adierazoten dautse olakoari norbere ta guztiekiko bake-mezua.

1965'an izan zan. Sarkaldetik etorritako neskatza bat, Zuri izen-ekoa, iru emakume oneitatik bateak atxillo ebana: «Gertau zaitez —esan eutsoen— paradisuari sartzeko, bederatzi urte barru, 1974'an, mundu osoaren ondamenaren ostean asteko dan paradisuari. Garbiak bakarrik salbatuko dira, eta zoriontasun osoa izango dabe». Zuriñe'k zergaitik ori esatean, beingo batean erantzun eutsoen: «Emen ez da itauntzen, entzun eta goi-goiko izakiagandik datoten mezua onartu baiño».

Nortzuk dira  
emakume oneik?

Sartu egoitzera ta aurkia jarri, itzetik-ortzera asi ziran India'ko goraberak ariltzen; morala be-

rantz, erlijio bizitza muelkildua, «swaltik» edo janari garbia ordeazkatua zan Sarkaldetik etuzan beste janari-mota batzukaz. Alkohol edariak, lizunkeria kalean, atzipenak, alkar ikisi-eziñak, bekaizkeriak, onexek dozuz shind'ek sartu dituan aurrerakuntza materialak. Emakumearen elburua etzan baterik senarraren irrutsak bete ta etzea zaindu. Zenbat ziran alan be euren senar mozkorti ta alperak baiño geiago! Baiña ori zer?, jainko dozu senarra!


Nok ezarti osabidea ainbat gaitzi? Politiku urdeak bear bada, ingles dana-gureak, egoki bizi darran erregetxoak, oneik guztiok otsegín bear zan garbitasuna zaintzeko gauza etziranak? Gure «Dada»k, ain maitatua ta itzal aundikoa dan gizaseme arek, emakume zapaldu ta saiets itzikorearen babele arek, ez eban susmatu be egingo goi-goiko izakiak bere aukeratu ebala bere jainkozko burdia, aurrerantzean gizadiari ota-egingo etsona.

Barri geiago. 1937'garren urtean «Dada», ustekabean, beste bat eginga aurkitu zan. Norbaitek bere ordeaz gauza arrigarrak aldarrikatzen zituan. Goi-goiko izakia zan, eta onexek, beste gizon onen auz, munduari ekartson gaitientzako bake-mezua garbitasun osoaren bitartez, erabidez eta ezkongetzaz, Hiderabad, au jaxone

... urria, izuak jota gelditu zan.  
 ... zuzentza etorren jentea eta osorik  
 ... jainko esperientzia artu  
 ... Itzaldietan emakumea-  
 ... garatasuna otsegiten zan geie-  
 ... orixegaitik ara urreratzen zi-  
 ... jakina, neskatz ezkongeeak  
 ... ezkondu gazteak izan bear.  
 ... ta oneik ezkongetasuna al-  
 ... jaten jaken, auxe bait zan  
 ... biderik benetakoena.  
 ... antolatu zan «sat-sang»  
 ... gogozko alkartea, gero OM  
 ... deitu jakona. Gizonezko  
 ... be jo eben talde ontako

izatera. Amak eta senarrak, baiña,  
 laster jagiko ziran orren aurka, le-  
 nengoak euren alabak betiko bir-  
 jina ikusiaz eta bigarrenak euren  
 emazteak egin eben garbitasun bo-  
 tua onartzen ez ebelako.

1937'ko urrian batzorde bat  
 sortu zan, zortzi andrak egiña, OM  
 Radha buru zalarik, auxe bait ex-  
 perientziak edo «ezaugutza» artu  
 ebenetatik aurreneko bat. Dalako  
 andra-batzordeak zuzenduko eban  
 alkartea, arrezkero «Prajapati  
 Brahma Kumaris Vishwa Vidya-  
 laya» edo euskeraz Jainko-Mun-  
 duaren Gogozko Ikasgua. Beronen



*B. K. Prakashmani, taldearen zuzendaria.*

elburua dozu: Gizaldia konturatzzen bada, bakea arimen garbitasunez bakar-bakarrik lortuko dala.

OM Mandali Karachi'ra aldatu zan, emen erosirik bost egoitza, bakotxari izen berezia ezarriaz. Orduko ba-ziran 400 bazkide, danak garbitasun bizitza bizi ebela alkarte barruan. Arriturik gertzen bat emakume oneik zelako uste ta etsibide aundiaz ikusten daben munduko gaitz guztientzako osabidea: Erritar geiegi?; kera ta zelibatua. Pentsamentu, itz eta egitezko garbitasunak, guk otsegiten dogunak ekarriko dau gizaartean bear dan oizko oreka ta ustelkeririk eza. Ez da izango jakiauzirik edarrietan, erretean eta griñetan alperreko gastuak moztuten ba doguz. Eroapen espirituak, maitasunak eta geure arteko bakeak dau naziñoko alkartasun egiazkoa. Mundu guztiko bakea, mailla guztietan ain eztabaidatutako auzia, norbere bakearen eta priñarik ezaren frutu eldua lezetorriko da».

### Brahma Kumaris eta Kumars

Goazen aurrera emakume oneitaz zerbait geiago ikasi daigun Brahma Kumaris'ek esan gura dau «Brahma'ren Alabak», hinduen jainko lez ezagutzen dogun Brahma barik, «Dada», onek barrizta-

tuko eban mundua adierazorik. Kumaris'ek ez dit albora izten Kumaris'ek, oneik be gitxiago izan arren, bizi bait dira ta otsegiten mezua. «Dada»-k uste eban benetan gizona ta emakumea oso bardiñak dirala, eta emakumea ikuspegi askotatik begira, gizonaren gainetik dagoala. Gizonak ondo erakutsita eukien euren gauza-eza mundua zuzentzeko; orain andrazkoak zuzendu bear eben bide artez-artezetik. Oneik asieratik ikasi bear eben zelan berba egin munduari.

1938ko uztaillaren 23'an, «Dada»-k Piggot ministruari idazten eutson, abereak jagon eta zaintzeko erabillen ardurea, pertsona askok sufriduten ebezan tratu txarrak kentzeko erabilli bear leukela. Amabost egun jan barik eta oiñazetuteko neskatilla baten ejenplua azpimarratzen eutson. Naziñoko lider ziraneie idatzi eutsen R. Tagore, Gandhi ta beste batzuei. Gandhi'ri, beronen baraualdi baten, telegrama baten, ar egiala kontuan, geiago nunbait, Izako Goi-goikoaren mezua. Olantxe, euren asmoa aurrera atera nairik, mundu guztiko errege, erregiña, alkarte ta olakoakaz euki eben artu-emon. 47'garren urteko maiatzean, Askatasuna lortu baiño ilabete batzuk aurrerago, urrezko letraz idatzi eutsen «Dada»-k Ingalaterra'ko erregeai ta gero Tru-

Kruschev'egaz egin zan  
India ikertzaera joan za-  
Aiken urteotan ONU-n baz-  
alkartuak izatea jadetzi dabe  
alabak.

### Mundu obe baten billa

Gaur-egun Kumaris'ko Brahma'  
mugimendu zabal baten  
dabiliz Mundu obe bat egi-  
«Alkartasun Orokor» billa.  
gogoratzen dausku Aita  
1950'garren urtean,  
Emakume oneik, era-  
ez dabe erlejiño era-  
osotzen, bestera erlejiño  
buruzagiak erabilli nai  
gurearen gutaria loritzeko. Aita  
ez eutsen entzun VI'  
Pablo aitasantuari Bombay'  
esaten Jainkoa ba'dago-  
beste erlejiñoetan be. Eta ez  
izan eretik Juan Pablo II'  
hake orokorraren alde In-  
ikusteko, beste erlejiño ta gi-  
eragin batzuekar batera.  
mundu obea Eleiza Katoli-  
am bakarrik.

Gure Kumaris'entzat mundu  
ta, eta guztien laguntasuna  
dabe. Eta au itxaroten  
erlejiño buruzagi, politiku,  
nientifiku, osagille, ira-  
industi-gizon guztiengan-  
ta baten, zelan edo alan gi-  
indarra daben guztiengana

urreratu dira. Igaz euren egitaraua  
izan zan «milloi bat miñutu bakea-  
gaitik», milloi bat pertsonak eski-  
ni egiela miñutu bat bakarrik, nor-  
beraren barne-bake, mundu osoa-  
ren bakerako.

Len-begituan lojikaren eza begi-  
tantzen jako bati, «Mundu obea-  
goagaitik» deritxon lan-asmoa;  
emakume orreik uste dabe mun-  
dua gero ta txarragora jo bear  
dauala, oro makur-azo ta ondatze  
biurrira doan burdin-adiñera elduz  
goazan ezkerro. Egia esan, baina,  
ez dago emeen lojikaren utsik.  
Gaur-egun pertsona zeatzakin lan  
dagie, garbiketara dei egiñaz,  
munduaren suntsitzea laster ger-  
tatuko dan ezkerro, gertu egon dai-  
teran, urrezko aro barrian edo  
atsedenezko zoriontasunean sar-  
tzeke. Egi-egiaz, eurak diñoenez  
jazoera onetarako urte gitxi gel-  
diturik, batzuri bakarrik elduko  
jake norbere burua garbitzeko lan  
au. Beraz, mundua bere gauzetan  
obe egiteko lana Neziño Alkartuai  
itxirik, eurak moral eta oitura ar-  
loan oberuteko lanari ekingo dau-  
tsoe, aunitz izan daitezcan azke-  
nerako gertatuak.

Zentxu bakotxak, ia naziño  
guztietan zabalduak, ikas-urteak,  
ikasguak eta itzaldiak eratuko di-  
tu, gorago aitaturiko pertsona guz-  
tien laguntzar: danon artean irrin-  
tzi au edatuko dabe: «Zagone er-  
nai, ordua ur da-ta».




## Zergaitik Abu mendia?

Ikusi dogunez, Kumaris'ak Shind eskualdean jaio ziran lenengo eta gero Karachi'n. Beingo baten, Abu mendiko kaleetan aurkitzen doguz. Zelan emon zan saltu ori? Euren kontra lenengotan sortu zan eraso, aul zan, itxura danez. Baiña or golperik zakarre-na. India zatitu egin zan 1947'ko abuztuaren 16'an. Shind'ek Pakistan sortu eban, eta onek adierazo eban, ainbat ilte ta eriotzaz, jentetza aundiak Indiara jo ebala. Karachi'n egozan Kumaris'ek

edozer gauzaren bildur ziran, baiña musulmanak ez jakezan makur izan.

Kartak eta kartak eltzen jakezan etxeakoak idatzita India'ra joan eitezala esanaz. Orrela egin eber 1960'an, euren puskat eta matratzuakaz Karachi laga ta Gujarat'eko Okha portura zuzendurik. Emendik, trenez,, Abu Roak geldokira, eta emendik 28 kilometro oiñez Abu mendiaren erpiñera arte. 400'tik gora ziran.

«Historia y vida» aldizkarietik  
AITA ONAINDIA'k euskeratua.



Maitasuna itsua izanik, maitaleek egiten dituzten txorakeriak ezin ikusi. (W. Shakespeare).

\* \* \*

Lenengo onbidea, mingaiñari eustea da; eta jainko ttikia da, arrazoi izan eta ixillik egoten dakiana. (Caton).

\* \* \*

Burruka bat galduta dagonean, iges egin dutenak bakarrik burrukatuko dira beste batean. (Demóstenes).

\* \* \*

Auleriak jo ta lurrean dagoana jaiki araztea ez da naikoa; ondoren eustea ere berrezkoa da. (W. Shakespeare).